

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa adin guztietako bezeroei zuzenduta egongo da, bai jende gaztearentzako eta baita adineko jendearentzat ere. Hori uste dugun arren, pentsatzen dugu bereziki 40 urte baino gehiagoko pertsonak kontsumituko dituztela gure produktuak.

Enpresaren filosofia ingurumena babestea eta gure langileak laguntzea izango da bereziki. Baliogarria izango da ezti naturala edo ekologikoa eta erleekin lotutako beste produktu naturala erosi nahiko dituzten pertsonentzat, baina irekita gaude bezero guzietara.

Gure produktua merkatu segmentatuan bereziki eskainiko dugu, printzipioz talde espezifikoko bati egokituta egongo delako gure produktua. Hala ere, nitxo osatutako merkatuetan (azoka lokaletan, erlezaintzako foroetan, aldian aldiko ferietan...).

Gure xede-bezeroa, benetako produktu naturala eta gehigarri gabekoa nahi duena izango da eta erleen produktu naturalak miresten dituena. Eraketa prozesuan ingurumena kontu handiz eta gogoz zaintzen dugu.

Gure produktuak oso erabilgarriak izango dira eta hainbat esparruetan erabili daitezke: ezti gaixotasunak sendatzeko balio du (eztarriko mina, bakterien aurka, ...), sukaldaritzan (azukrea ordezkatzeko, ...), ... propoleoa ere, gaixotasunak sendatzeko balio du (lasaigarri bezala adibidez), garatxoak kentzeko, ... azkenik gure "zera" naturala azalerako hainbat onurak ditu, ...



